

# OROIPENA BIHOTZEAN

## Jesusen Bihotzaren hilabetea

Mons. Fernando Preado Ayuso, CMF

Donostiako Gotzaina

2025eko ekainean

«Esan ote daiteke  
oroimena arimaren parte ez denik?»  
*San Agustin*

Elizak Jesusen Bihotzarekiko debozioa bizi ohi duen ekaina hau aurten debozio bereziz biziko du Donostiako gure elizbarrutiak. Eliza osoak bizi duen jubileu-urtea dugu, alde batetik, eta bestetik berriz, gure elizbarrutiaren sorreraren 75. urteurrena. Jubileu ospakizunetan gara, beraz, bete-betea. Aldi berean, Urgull mendian Jesusen Bihotzaren monumentua inauguratu zutela ere 75 urte betetzen da aurten. Hamarkada batzuk lehenago amestua eta pentsatua zuten monumentu hau eraikitzea<sup>1</sup>.

Urtero, ekainean, gogoan dugu kristauok zein garrantzitsu den Jesusen Bihotza goraipatzea, maitasun eta erruki-iturri baitugu. Kristoren Gorputz Odol Santuen festaburu ondoko ostiralean, Jesusen Gorputz zulatua kontenplatzeraz gonbidatzen gaitu liturgiak. Zalapartak, tentsioak, polarizazioak eta, maiz, etsipenak joa dagoen mundu honetan, debozio honek honetara gonbidatzen gaitu: bihotza irekia duen Jesusek beraren bakean sartzera. Hil berria den Frantzisko Aita Santuak 2024an idatzi zuen azken entziklika, *Dilexit nos* titulaturik, Jesusen Bihotzari buruz dago idatzia, hain zuzen. Hau dio entziklika horretan: «Kristoren barne-muina den Bihotza, nondik sortzen baita gurekiko duen mitasuna, horixe da lehen predikazioaren erdigune bizia. Hori du bere jatorria gure sinesmenak, horixe bere iturburu kristauon sineste sendoak, horri esker dirau bizirik» (32. zk).

Donostiako fededun gehienon ikuspegi pastoraletik begiraturik eta ditugun inguruabarrak kontuan izanik, une egokia deritzot oraingo honi, gure hirian Jesusen Bihotza agerian egon behar duela baiezteko. Eta, aldi berean, Donostiako gure hiriarentzat Jesusen Bihotzaren babesa eta zaintza eskatzeko. Monumentuaren inaugurazioa gogoratu eta ospatzeko, Jesuiten komunitatearekin batera eta Urgulleko Jesusen Bihotzaren Adiskideen Elkartearekin batera, zerbait ospakizun erlijioso antolatu nahi izan dugu (katedralean bederatziurtera, ospakizunak Urgulleko kaperan), baita zenbait kultur ekitaldi ere (hitzaldiak, liburuaren aurkezpena, otoitz-kontzertua) ekainean zehar. Datorren azaroan ere izango da zenbait ekitaldi monumentua eraiki zuteneko urteurrena gogoratzeko. Emango dugu garaiz horren berri.

Gure hirian sortu den eztabaida batek lausotu du aurten Jesusen Bihotzaren jai liturgikoa: udaletxeko zenbait talde politikok bultzaturik, Jesusen Bihotzaren irudi hori «oroipen demokratikoaren aurkako» diren sinboloen Katalogoan sartu nahi izan dute, 20/2022 Legearen arabera (Oroipen Demokratikorako Legea). Urgulleko Jesusen Bihotzaren irudia «nazional-katolizismo frankistaren goratzea» dela argudiatuz.

Zorroztasun historikoa oinarri hartuz gero, frogatzen zail den tesi horren aurrean, monumentuaren historia ikertu duten autore partikularrek eta erakunde fidagarriek baietsia dute

---

<sup>1</sup> Hiriko beste artxibo batzuetan bezala, Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan (hemendik aurrera DEAH) dokumentazio ugari dago, eta bertara jo daiteke gaia aztertzeko. Signaturak eta katalogatutako dokumentuen erreferentziek bederatzi orrialde betetzen dituzte (buletinak, aldizkariak...), Jesusen Bihotz Santuaren inguruko gotzaindegia funtsa osatzen dutenak.

monumentu horren jatorria eta helburua erlijiosoa baizik ez dela eta herriaren debozioari erantzuteko pentsatua, eta ez dela inolako propaganda politiko-partidista egiteko eraikia. Bestalde, Donostiako hirian gaurdaino bizirik dirau Jesusen Bihotzarekiko debozioak eta munumentuarekiko jaierak. Bizirik dirau bai, eta Donostia hiriak eta Gipuzkoako Elizak bizi duen historiaren parte da gaur egun ere. Fededun asko testigu izan zen nola sortu eta eraiki zuten monumentu eder hau eta 1950ean inauguratu. Bere izate erlijioso eta fedezkoa gaurdaino kontserbatzen du garbi aski.

Egokiera hau dela eta, utz iezadazue herritarrei gauzak nola izan ziren adierazten, adeitasunez eta errespetuz, baina itzulungurutan ibili gabe. Azterketa laburra eskaini nahi nuke, lasaia eta monumentuaren sorreran, esnahian eta balioan oinarritua. Horrela, Urgulleko Jesusen Bihotzaren irudia elkarrekin balioztatu dezagun benetan. Donostiako paisaiaren parte da gaur egun, baita hiriaren memoriaren eta erlijio-bizipenaren parte ere.

## **1. Jatorri historikoa: Gerra Zibilaren aurretik eta ondoren sakonki egindako ibilbide erlijiosoa**

Urgull mendian Jesusen Bihotzaren ohorez monumentua eraikitzeke asmoa ez zen 1950ean izan, eta ez zen antolatu diktadura garaian xede ideologikoen arabera. Memoria era zintzo eta prestuan hartuz gero, ez dago arrazoirik hori horrela izan ez zela esateko, ez bailuke inolako oinarririk izango.

1926an du bere sorburua monumentua eraikitzeke asmoak. Izan ere, Jesusen errege izateari buruz *Quas primas* entziklika Pio XI.ak 1925ean argitaratu ondoren, familietan eta herrietan Jesusen Bihotza tronuan jartzeko ohitura zabaldu zen Gipuzkoan. Orduan eratu zuen Aita Santuak Jesu Kristo diren guztien Erregearen Festaburua. Baina lehendik era bazetorren Jesusen Bihotzarekiko debozioa eta hirian monumentua eraikitzeke asmoa.

XVIII. mendean, Loiolako San Ignazioaren espiritualtasunak eraginik, Agustin Kardaberaz eta Sebastian Mendiburu jesuita ospetsuek ereina zuten eta piztua Jesusen Bihotzarekiko debozioa beren predikuen bidez. Berrehun kofradia sorrarazi zuten, eta Gipuzkoa osoko parroketan eta elizetan Jesusen Bihotzaren milaka irudi jarraazi. Garai hartakoa da, Donostiako alde zaharrean dagoen Koruko Santa Mariaren basilikako erretaula bat, 1766an egindako Jesusen Bihotzaren irudia duela. Penintsula osoan Jesusen Bihotzaren irudirik zaharrena da hori, ziur aski. Gure hiriko zenbait elizatan eta beste zenbait eskualdetan ditugun Jesusen Bihotzaren irudiak XX. mendearen lehen laurdenean eginak dira gehienak. Beraz, Gerra Zibila hasi aurrekoak.

Gipuzkoarrek eta donostiar askok Jesusen Bihotzari zioten debozioak eraginik, sortua zen Urgull mendian Jesusen Bihotzari monumentua eraikitzeke asmoa. Pio XI.ak argitaratutako entziklika zela eta, fededun talde batek elizbarrutiko Aldizkari edo Boletín Nagusian idatzarazi zuen «Urgull mendian Jesusen Bihotzari monumentua eraikitzeke asmoa»<sup>2</sup>. Gasteizko Gotzaina zen Zacarias monsiñoreak animaturik –garai hartan gure lurraldea elizaz elizbarruti haren ardura pekoa baitzen–. Mendi hori erosi berria zion Donostiako Udalak<sup>3</sup> garai hartan *Ministerio de la Guerra* zeritzanari (Marokon izandako gerragatik zeraman izen hori). Zuzemen edo gestioak egin zituzten horretako, eta diru-bilketak antolatu, monumentua eraiki ahal izateko.

---

<sup>2</sup> IGNACIO M<sup>a</sup> AZCOAGA BENGOCHEA, *El rostro “eucarístico” de Jesús: Su Corazón. La devoción al Corazón de Jesús y su influencia en Gipuzkoa*, Idatz argitaletxea, Donostia, 2025, p. 424.

<sup>3</sup> San Telmo komentua bezala, Udalak urte batzuk lehenago erosi zuen Urgull mendia, 1921ean.

1928an, elizbarrutiko gotzain izatea uzterakoan<sup>4</sup>, Zacarias gotzainak egin zuen despedidagutunean, berriz ere animatu zituen gipuzkoarrak asmo horretan aurrera egitera. Munduko eta gure inguruko beste hiri batzuetan egina zuten bezala<sup>5</sup>, erronka egin zien «Urgull mendian, Gipuzkoako hiriburu ederra bere oinean duen mendian, irudi erraldoia eraikitzeke; han, zeruaren eta lurraren artean eraikia, irudi horrek zerutiko bedeinkapena ekarriko die zuen nazio katolikoko seme-alabei, bai hiriko bizitza zalapartatsuan dabiltzanen gainera bai landan bizitza lasaia daramatenei bai arrantzu-lanean egunero bizia arriskuan jartzen dutenei». Gutun hartan Gotzainak dei egiten zien sendo manten zezaten «asmo hura azkeneraino eramateko erabakia, behin ere huts egin gabea zen eskuzabaltasunak lagundurik (...), zuen sinesmenaren eta jaieraren adinako momumentua eraikitzeke asmoa, alegia; ondorengoek ere begi aurrean izango duten monumentua». Hori aurrera eramateko, talde sustatzailea ere eratu zuen Gotzainak. Denen ahaleginen emaitza izatea nahi zuen Gotzainak: «Gipuzkoako Aldundi Txit Gorenak, Udal Prestuek, parrokiek eta elkarte erlijiosoek, ikastetxe eta eskolek, lantegi eta tailerrek, baita pertsona pribatu orok ere, izan militar nahiz herritar, izan ikasia nahiz langile soila, izan itsasgizon nahiz nekazari, nola bere sorterrian bizi denak hala Ameriketako lurrate urrunetara joanak, denek eraiki behar dute monumentua». Eta hau eransten zuen: «Harri batena ordaindu ezin duenak, eman beza zati bat ordaintzekoa bederen. Baina ez bedi inor geld, bere emaitza oparoaz nahiz bere gogo onez, begirune- eta maitasun-agiri hori egin gabe Jesusen Bihotz Txit Santuari, Gipuzkoako Errege eta Jaunari». Gotzainak hala agindurik, Gipuzkoako parrokia eta eliza guztietan irakurri zuten gutuna. Hasiera batean, diru-laguntza ederra bildu zen<sup>6</sup>. Hala ere, proiektua bertanbehera utzi behar izan zuten urte haietan<sup>7</sup>, zenbait arrazoi ezberdinengatik; arrazoi horien artean, bat nabarmena zen: ezegonkortasun politikoa, 1931. urtean Bigarren Errepublikaren errotak zutenean.

Gerra Zibila indarrean zelarik, 1938an, *Legión Católica* zelako kide batzuek eta nazioarteko mugimendua zen *Otoitz Apostolutza (Apostolado de la Oración)* zelakoak Donostian zuen taldeko kide batzuek bere gain hartu zuten monumentu hau eraikitzeke asmoa alait lehen aurrera eramateko asmoa, eta horixe adierazi zieten eliz agintariei eta agintari zibilei. 1938ko ekainaren 19an, Jesusen Bihotzaren omenezko prozesioan, Donostiako alkate zen Antonio Pagoaga jaunak denen aurrean jakinarazi zuen Udalak ehun mila pezeta emango zuela helburu horretako<sup>8</sup>. Urte batzuk geroago, beste horrenbeste eman zuen Aldundiak. Gainerakoa herritarren artean egindako diru-bilketak emango zuen. Gerrateak markatua zegoen estuinguru zail eta garratz hartan, eginahalak egin behar ziren Jesusen Bihotzarekiko debozioari iraunarazteko, donostiar eta gipuzkoar askok bake-itxaropena ikusten baitzuen debozio horretan eta kontsueloa hain gerrate ankerraren erdian.

1939ko maiatzean, gerratea bukatu eta hilabetera<sup>9</sup>, frankisten garaipenaren ondoren, *Monumentua eraikitzeke Talde Iraunkorrek*, aurreko urtean eratuak, «eraikuntza egiteko asmoa babesteko»

<sup>4</sup> *Carta circular del Obispo de Vitoria (1928)*. Ikus Gasteizko Gotzaindegiko Aldizkari Nagusia, DEAH, sig. 8206/009, 185-187. or.

<sup>5</sup> «Urteak dira zuen baitan taupadaka ari dela, baina are hegaldi handiagoak egin ditu zuen ahizpa Bizkaia Jesusen Bihotz Jainkozkoari Bilbaon eraikitako bere monumentu bikainaren inaugurazio eguna ospatu zuenetik...» *Íd.* *Ibid.*

<sup>6</sup> Horrez gain, ekimen ugari proposatu ziren. 1929ko apirilean, Francisco Gallego Donostiako Entronizazioen Batzordeko zuzendariak gutun mekanografiatu batean zenbait jardura proposatu zizkion Gasteizko gotzainari Urgull mendian monumentua eraikitzea bultzatzeko, eta, aldi berean, hura egiteko baimena eskatu zion (Donostiako Gotzaindegiko Aldizkari Nagusia [DGAN], 8025/001-01).

<sup>7</sup> DGAN, *Escrito sobre la historia del Monumento al Sagrado Corazón de Jesús en el monte Urgull 1950*, DEAH, sig. 8205/043, 60. or.

<sup>8</sup> *Idem.*, 59. or.

<sup>9</sup> Ikus *Acta del Ayuntamiento* 1939ko maiatzaren 31. Donostiako Udal Artxiboa (DUA), *Monumentos y homenajes. Erección de un monumento al Sagrado Corazón de Jesús 1943-1954*, sig. 3483/ A. B/2.

eskatu zion Udalari (nahiz asmo hori Udalarena ez izan); Udalaren Ogasun Ponentziak erantzun zuen «kristau omenaldi horri gerran erorien oroipena erantsi behar zitzaioa» eta, horretako, hurrengo urteko aurrekontuetan ehun mila pezeta sartzeari proposatzen zuela, aurreko alkate monarkikoak, Antonio Pagoagak, hala hitzeman zuelako. Talde Iraunkorreko presidenteari «dena gutxi iruditu zitzaion, erorien oroimenez egiteko», zeren, beste zenbait tokitan erorien omenez egiten ari zirena kontuan izanik, Gipuzkoa «ezin baitzen atzean gelditu». Onartua gelditu zen eskaera ekonomikoa eta Ponentziak zituen teknikoen proposamena. Hala ere, gerora proiektua egikaritzeko orduan, ez zen inoiz ere obra-lanetan kontuan izan, Espainiaren alde eroriak aipatzen zituen Udal Komisio frankistaren orientazio hori<sup>10</sup>. Ez zuten inoiz onartu erregimenarekin zerikusia zukeen inolako propaganda sinbolorik.

1944ko maiatzean, bultzada berria eman zioten proiektuari<sup>11</sup>, berriz ere bertanbehera utzia baitzuen<sup>12</sup>. Une hartan Gasteizko gotzain zen Mons. Carmelo Ballester jaunak, asmo hau erabat bere esku hartuz, Junta Nagusia deitu zuen berriz ere. Agintari zibil eta militarrek, Aldundiko presidentea, Donostiako alkatea, eta aurreko Junta erakileko kideak izan ziren batzarrean. «Arazo honen arduradun den autoritatea naizenez, oraintxe bertan erabakitzen dut han (Urgull mendian) monumentu hori eraikitzea», esan zuen gotzainak (1944ko abuztuaren 3an)<sup>13</sup>. Elizak antolatutako ekitaldi publiko horrek ez zuen xede politikorik izan: Kristoren Bihotzarekiko maitasun-agiria probintzia osoari eskaintzea zen asmoa, anaia artean urtetan izandako gatazkaren ondoren normaltasuna berreskuratu beharra baitzegoen. Asmoa beti Elizaren aldetik etorri zen eta dirua, familia donostiar eta, oro har, gipuzkoarrengandik etorri zen. Herriak emandakoa 1.798.591 orduko pezeta izan zen.

1945eko abenduan, aho batez onartu zuen Udalaren osoko batzarrak monumentu hura

---

<sup>10</sup> Udalaren aipatutako akta ez da «eraikuntzaren onarpenari» buruzkoa, baizik eta Ogasun Ponentziaren proposamen bati buruzkoa, erregimenaren aldekoa den Udal Batzorde Iraunkorrek funtsean ideia «babestea» onar zezan, eroritakoei lotuz eta alkateak hitzemandako ehun mila pezetekin hornituz. Gertakariaren balorazioan oso garrantzitsua da kontuan hartzea nola Udaleko batzuen euforia frankistak, gerra amaitu eta hilabete eskasera, monumentua eraikitzearen ideia eragin nahi izan zuen, eroritakoen omenaldiarekin lotuz, eta hori ez zen inoiz gertatu. Oso esanguratsua da, prozesu luze honetan, 1944ko martxoaren 11n hiriko Alkateari bidalitako Gutuna. Bertan, Monumentua Eraikitzearen Batzordeak Alkateari honakoa gogorarazten dio: «Argitu behar da, baita ere, udal txostenean aipatzen den eroritakoen oroimenak, Monumentuari erantsitako eraikin bat zekarrenak, ez duela jada arrazoirik, bai baitago dagoeneko oroigarri bat San Telmo plazan eraikia» (Ikus Donostiako Udal Artxiboa (DUA). *Monumentos y homenajes. Erección de un monumento...*, op. cit.). Gutun hau garrantzitsua da, eta argi eta garbi uzten du hasierako ideiak ez zuela zerikusirik erorietan, ezta eraikina egitean sartu nahi zuten asmo politikorik ere. Era berean, gutunak erakusten du Monumentuaren Batzordea arduratu zela monumentua ez zedin «kutsatu» erorien kausa horrekin, 39ko maiatzaren 31n aurkeztutako Udal Ogasuneko Ponentziak aipatzen zuen bezala. Hildakoen aldeko ekitaldiak ez ziren inoiz egin Urgulleko Jesusen Bihotzaren monumentuan. Monumentua eraikitzearen benetako «udal-onarpena» urte batzuk geroago gertatu zen, 1945ean, ekimena Gotzainaren esku utziz, hura baitzen orduan gai horretako agintaritzaren eskuduna.

<sup>11</sup> 1943an, Udalbatzak berriro heldu nahi izan zion ideari eta, paralisaren aurrean, «monumentuaren Batzarraz eta Udalez beraz kanpoko gora-beherengatik», «ideia bikain honi bizitza berri bat emateko Udalaren ekimena izan dadila berriz ere», eta «gure Bihotz Santuaren Monumentuaren eraikitze hain desiratua egunen batean errealitate zoriontsu izan dadin» (Ikus DUA, *Monumentos y homenajes*, op. cit.). Hurrengo urtean Gotzainaren esku geratu zen asmoa.

<sup>12</sup> «Monumentuaren Batzordea osatzen zuten jaunen borondate eta suhertasunarekin zerikusirik ez zuten inguruabarrek beraiei nahiak atzeratzera behartu zituzten...» (Ikus *Carta del alcalde de San Sebastián al obispo de Vitoria con la Memoria sobre el Monumento al Sagrado Corazón de Jesús* 1948ko otsailaren 10eko bileran Udalean irakurria. 1948ko otsailaren 9, DEAH, sig. 8205/008).

<sup>13</sup> Udaleko Obra Batzordeak «Monumentua kokatzeko egokien zeritzon lekua aukeratzeko eskaintza egin zion (gotzainari)». Gotzainak, azkenik, Urgulleko gaztelua aukeratu zuen (Ik. *Carta al obispo de Vitoria de la Junta del Monumento al Sagrado Corazón de Jesús sobre el emplazamiento del Monumento al Sagrado Corazón de Jesús* 1945, DEAH, sig. 8205/009).

eraikitze baimena ematea, Urgull mendian, «El Macho» deitutako tokian<sup>14</sup>. 1947an, Estatu osoko profesionalen artean, aurreproiektu arkitektoniko eta eskultorikoak aurkezteko konkurtsoa deitu zuten<sup>15</sup>. Proiektu irabazleak egoki betetzen zituen Junta eragileak nahi bezalako diseinua, eta irisgarritasuna eta liturgi eskakizunak ere aurkezten zituen<sup>16</sup>. Don Pedro Muguruza arkitektoaren eta Don Federico Coullaut Valera eskultorearen esku utzi zuten proiektua (azken honek egin zuen Bilbon 1924-1927 bitartean, Jesusen Bihotzaren monumentua). Zenbait arkitekto lehiaketarako aurkeztu zituzten memorietan behin baino gehiagotan garbi diote «munumentuak izaera erlijiosoa besterik ez zuela izango». Oina 1948ko ekainaren 27an bedeinkatu zuten<sup>17</sup> eta irudia 1950ean bukatu zuten eraikitzen, haraino iristeko zailtasun handiak izan zituzten arren eta argindarra ere murriztua izan zuten arren. Langileek berek, joera politiko ezberdinetakoak izanik ere, beren izenak eta beren etxeko izenak sartu zituzten irudiaren bihotzak duen zuloan, horrela beren begirunea eta debozioa aditzera emanaz.

Azkenean, 1950eko azaroaren 19an bedeinkatu eta inauguratu zuten monumentua ofizialki. Ospakizun hartan ez zen izan Franco, ezta gobernuko edota Falangeko beste kiderik, nahiz eta Donostian bertan beste eraikin nahiz obra publiko asko inauguratzean izan ohi ziren gobernuko kideak. NODO filmak erakusten du nola inauguratu zituen Francok Donostiako “saihesbidea”, Donostia Ospitala, Peñaflorida Institutua, Perito Eskola, Altzako Lanbide Eskolak eta hirian jasotako beste zenbait eraikin.

Inaugurazio-egunean, Jaime Font y Andreu monsiñoreak<sup>18</sup>, Donostiako gotzain izendatu berriak, Meza ospatu zuen irudiaren oinetan; Orfeoi Donostiarrak abestu zuen, eta herriak jaiera handiz jarraitu zuen ospakizuna<sup>19</sup>. Ez zen ospakizun hartan inolako aipamen politikorik izan. Gauza bera esan dezakegu eskulturan ezarritako propaganda idazkun eta sinboloei begira

---

<sup>14</sup> Lehenago, Udalak txosten bat eskatu zion formalki *San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiari* eta baita *Arkitektoen Elkargo Nazionalari* ere. Iritzi publikora iristen ziren orduko arazoak eta desadostasunek zerikusia zuten monumentua Urgull Mendiko *Arra* deiturikoan eraiki zen tokiarekin. Aldeko txostenarekin, hurrengo pausoak eman ziren, oraingoan behin betikoak.

<sup>15</sup> Lehiaketaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Nagusian (GAN) argitaratu ziren martxoaren 10ean (Ikus aipatu Aldizkariaren 188. or.).

<sup>16</sup> D. Pedro Muguruza eta Federico Coullaut Valeraren behin-betiko proiektua aho batez izan zen onartua Udal batzarrean 1947ko abenduaren 15ean.

<sup>17</sup> 1948ko otsailaren 9an Alkateak Monumentuari buruzko aipatu *Oroimenezko* gutuna idatzi zion gotzainari, hurrengo egunean, otsailaren 10ean, Udalak egindako bilkuran irakurria izan zena. Gutun horretan hogeita hamarreko hamarkadako gorabehera buruz hitz egiten da eta 1939ko maiatzaren 3an egindako Udal Batzorde Iraunkorraren bilkuran azaldutako ekimenaz ari da bertan eratu zen gerra osteko Monumentuaren lehen Batzordea, alkatearen hitzetan: «Gutun bat bidali zion Udalarri gure hirian Jesusen Bihotz Santuari monumentu bat eraikitze gogoz eta Urgull mendiaren lekua seinalatuz eta udalerriak alderdi ekonomikoan lagundu zezan eskatuz». *Oroitagiri* horretan honako hau ere aipatzen da: «Eskarak arrakasta lausengarria izan zuen, izan ere, Udalak, 1939ko maiatzaren 31ko batzarraldian, Urgull mendian eraikitzearen ideia babestea eta hasierako ekarpen gisa 100.000 pezeta ematea erabaki zuen». (Ik. *Carta del alcalde de San Sebastián al obispo de Vitoria con la Memoria...*, lehen ere aipatua, DEAH, sig. 8205/008).

<sup>18</sup> Artzain Onean egindako lehenengo hitzaldian, Jaime Font y Andreu elizbarrutiko lehen gotzainak luze eta zabal hitz egin zuen monumentuaren inaugurazio gisa laster egingo zen ekitaldiari buruz. Bertan, prelatuak inaugurazio ekitaldiak nolakoak izango ziren deskribatzen zuen. Aipamen horretan ere ez dago inolako erreferentzia politikorik (DGAN, 1951, 109-117. or.).

<sup>19</sup> Ekitaldia Jesusen Bihotzaren kofradiek eta Otoitzaren Apostolutzak gidatutako urteetako ahaleginaren, ekinaren eta imotasunaren gailurra izan zen (ikus DGAN, *Escrito sobre la historia del Monumento al Sagrado Corazón de Jesús en el monte Urgull 1950*, en DEAH, sig. 8205/043, 57-61. or.). P. Manuel María Menchaca jesuitak funtsezko papera jokatu zuen ekitaldiaren antolaketa luzean. Ekainerako pentsatu zen, eta, hainbat arrazoi zirela medio, azarora arte atzeratu zen. Hala, ondo prestatu ahal izan zen ekitaldia, hirunaka eta bederatziurrenetan, inaugurazioaren aurreko egunetan. Montini Monsinoreak—Paulo VI.a aita santua izango zenak— hala eskatuta, P. Menchacak, proiektuaren azalpen-memoriaren egile izan zitekeenak, Pio XII.a aita santuari eman zion idazkia, irriti-mezua gogoangarria eskatzeko. (ikus *Carta del P. Menchaca al obispo* DEAH, sig. 8205/001).

ere. Beste monumentu batzuek ez bezala, Urgulleko Jesusen Bihotza monumentuak garbi iraun zuen, gobernuari edota politikari buruzko inolako erreferentziarik gabe. Eta halaxe dago gaurdaino. Ospakizuna bukatzean, Gipuzkoa Jesusen Bihotzari sagaratzeko formula irakurri zuen<sup>20</sup>, garai hartan Gipuzkoako Aldundiko presidente zen Avelino Elorreaga jaunak. Eta Erromatik Aita Santuak zorion-mezua bidali zuen irratiz; horregatik, esan dezakegu “zuzenean inauguratu” zuela monumentua Aita Santuak. *Alderdi Ederren* eta portu aldean milaka donostiar eta lurralde osotik etorritako jendeak zuzenean entzun ahal izan zituen Pio XII.a Aita Santuaren hitzak. Oso kritikoa izan zen Aita Santu hau nola komunismoarekin hala nazismoarekin. Egun gogoangarria izan zen benetan Donostiarentzat egun hura. Prozesu horretan guztian –1920an monumentua egiteko asmoa azaldu zenean, Gerrate Zibila izan zenean, 1944an monumentua eraikitzeko asmoa berresturatu zutenean, eraikuntza-lanak egin bitartean eta 1950ean inauguratu zutenean– motibazioa beti erlijiosoa baizik ez zen izan: hainbeste urtetako sufrimenduaren ondoren, donostiarrek eta gipuzkoarrek zuten bake-irrikari, kontsolamendu- eta adiskidetze-gogoari erantzutea, halako fede-ezaugarria agerian jarritz<sup>21</sup>.

## 2. Monumentua «sinbolo frankista» dela frogatzeko argudio bihurria

Ukaezineko datu hauen aurrean, harrigarri gertatzen da –eta hiritar askorentzat, sinestean izan nahiz ez izan, mingarri– Jesusen Bihotzaren ohorez eraikitako monumentua “sinbolo frankista” edota “gorapen diktatorialerako tresna” dela esatea. Bestalde, zenbait alderdi oinarritzko oroitaraztea komeni da:

1. Frankismoa instituzionalki ezarri baino lehenagokoa da proiektu hau. Gerra Zibilaren ostean, Francok Espainiako agintea bere gain hartu baino hamar urte lehenago hartu zuten monumentua eraikitzeko asmoa. Gipuzkoa Jesusen Bihotzari sagaratu nahi zioten gipuzkoar sinestunek bultzatua izan zen proiektua, apaizetarako eta erlijiosotarako bokazioak ugari ziren garaian, gizarte bakean zen unea, garai hartako politika partidistarekin zerikusirik ez zuten sermoi eta predikazio kateketiko artean.

2. Ekimena sinestunena eta herriarena izan zen, beste zenbait tokitan bezala (Bilbon, adibidez). 1938an, Gerra Zibilaren erdian, Donostian *Otoitz Apostolutzarekin* zerikusia zuen katoliko talde batek bere egin zuen proiektua. Argi ikus daiteke, beraz, motibazioa ez zela altxaldia egin zuen alderdi edo bandoaren propaganda izatea, baizik eta Jesusen Bihotzarekiko debozioa sendotzea, gerrak berekin zuen ziurgabetasunaren erdian. Jesusen irudia eraikitzeko asmoa ez zen inoiz ere Francori monumentua egitea izan, ezta gerran eroriei ezta horrelako ezeri ere; Jainkoaren errukiaren ohorez eraikitako monumentua izatea nahi zuten, beharrezkoa ikusten baitzuen Jainkoaren errukia apaiz, erlijioso eta laiko askok, garai latz haietan itxaropena izateko<sup>22</sup>.

Ikusi ahal izan dugunez, ez da izan eta ez dago orain ere erlijiosoa ez den inolako zantzurik ez sinbolorik, ez irudian bertan ezta monumentuaren inguruetan ere. Herriak babes eta bultzada handia eman ziolako onartu zuten aho batez garai hartan Donostiako Udalean arduradun zirenek monumentua eraikitzea. Herritarrek eta eliztarrek emandako babes horren xedea ez zen erregimen frankistaren programa politikoa betetzea, baizik eta Donostiako gizarteak bere

<sup>20</sup> *Acto de consagración de Gipuzkoa al Corazón de Jesús* testua, Ahaldundiko Presidenteak irakurria, Donostiako Gotzaindegiko Aldizkari Nagusian jasoa dago, 1951, 109-117. or.

<sup>21</sup> Urte horretako Donostiako Gotzaindegiko Aldizkari Nagusian aurki daiteke *Escrito sobre la historia del monumento al Sagrado Corazón de Jesús en el monte Urgull*, interesgarria dena monumentuaren historia nola deskribatzen duen ikusteko, inauguratua izan zen urte berean, hain zuzen (DGAN, 1950, 57-60, or.).

<sup>22</sup> Gogora dezagun gutun pastoral honen orri-oineko 10. oharrean aipatutako gutun argigarria hiriko alkateari idatzia.

espiritualtasuna eta nortasun kulturala bizirik iraunarazteko zuen gogoia. Herriak horretako eman zuen dirutza handiak argi erakusten du hori. Irudi eder hori eraikitze-lanean ari izan ziren langileen zeinuak aditzera ematen du izaera erlijiosoa zuela monumentuak. Donostiako lehenbiziko gotzain izan zen Jaime Font y Andreu jaunak<sup>23</sup> argitaratu zuen lehenengo Aholku-hitz pastoralean honako hau irakur daiteke: «Jesusen Bihotza Probintziako Errege eta Jaun izateak bere azalpenik ederrena du Gipuzkoak Donostian Jesusen Bihotzari eraiki dion monumentu handi eta irudi erraldoi horretan». Irudia denen proiektua izan zen, Gipuzkoako gizartearen babesaz eraikia, garai hartan gehienak erlijio-zentzu eta fede handikoak baitziren.

3. Inaugurazio-ekitaldirako deiak propaganda-kutsurik ez izateak eta izaera erlijiosoa besterik ez izateak argi eta garbi erakusten du monumentuaren xedea zein zen. 1950eko azaroaren 19ko ospakizuna liturgikoa baizik ez zen izan, Elizbarrutiak antolatua eta presiditua. Ospakizunean Gotzainak monumentua bedeinkatu zen, Meza Nagusia ospatu eta Gipuzkoa Jesusen Bihotzari sagaratu, anaiarteak, kofradiak eta eliztarrak bertan zirela. Ez zen erregimena goraipatzeko hitzaldirik izan, ezta erregimenaren aldeko sinbolorik ere ospakizun hartan.

Beraz, Urgull mendian Jesusen Bihotzaren ohorez eraikitako monumentua «frankismoaren goraipamenerako» dela dioen tesiak ez du sendotasun handirik, historia nola gertatu zen ikusiz gero. Hori diotenek ez dute nonbait dokumentazio historikoaren berririk, hainbeste buletin, akta, artikulua eta liburutan jasoa dagoen dokumentazioa, alegia. Egia da, XX. mendeko berrogeiko hamarkadan izen handia zuela Elizak herrian, eta erregimen frankistak halako pribilegio batzuk emanak zizkiola. Hala ere, Donostian monumentua hori eraikitze asmoa –lehenagokoa baitzen– ez eraikuntza-lana bera ez zen gobernuaren aginduz edota Francoren erregimenaren kontrolpean egin. Gipuzkoako kritau elkartearen eskumenez eta gogoz izan zen, Donostia hiriko toki esanahitsuan kontsolamendua eta debozioa agerian jartzen zuen sinboloa eraikitzea.

### 3. Sinesmena eta erlijiotasuna, gure historiaren alderdi garrantzitsua

Irudi hori «memoria demokratikoaren aurkakoa» dela dioten argudio nagusiak ezin ditu lotu erregimenaren errepresioarekin frankismo-aldi hartan proposatu nahiz eraikitako sinbolo erlijioso guztiak. Gauzak nola gertatu ziren ikusirik eta ikerketa historiko zorrotza eginez gero, ez dago lotura hori baiesterik. Ondorioztatze okerra da, beraz. Urteetan zehar «kaleko kontutzat» zabaldua den zerbait da, gezurra izanik ere. Egia da, Eliza katolikoak nolabaiteko harreman instituzionala izan zuela Estatuarekin, eta Ama Birjinaren edota Jesusen Bihotzaren ohorez eraikitako monumentu asko garai hartan eraiki zutela. Hala eta guztiz ere, frankismo garaian eraikitako sinbolo erlijioso oro ez da *per se* edota *ipso facto* «monumentu frankista» edota «erregimen frankista nazional-katolikoaren sinbolo». Bereizi beharra dago, noski, herriaren debozioak –parrokiek, kofradiek, eliztarrek– eragindako ekintza den ala propaganda ofiziala egiteko ekintza den. Urgulleko monumentuaz esana dugu elizbarrutiak, sinestun elkarteak eta Gipuzkoako gizarteak eragindako asmoa izan zela (ez gobernuak emandako dekretuz egina).

Balio demokratikoak babestea du xede 20/2022 Legeak, eta frankismoaren edozein goraipamen erauztea. Baina, Udaleko memoria historikorako Kontseiluak «irudia kentzea», «oroipen-ekitaldiak bertan behera uztea» eta «zaharberritzeko lanik ez egitea» eskatzean, arrisku larria du bi gauza hauek nahasteko: ‘oroipen demokratikoaren’ zaintzea eta bidezko den ondare historiko eta erlijiosoaren ezabatzea nahiz ezeztatzea, hiritarrentzat onuragarri izan zen ondarea ezabatzea, alegia. Horrelako planteamenduek, eztabaida orekatua eta egia

---

<sup>23</sup> DGAN, 1951, 109-117. or.

historikoan oinarritua sustatu ordez, hiriari sinbolo maitagarria kentzera eramán gaitzakete, gerraren ondorioz gelditutako zauriekin batean izan dugun sinboloa, eta gerora, demokrazia garaian, Euskadi osoak eta, zehazki, Gipuzkoak eta Donostiak, terrorismoa zela eta, nozitutako sufrimenduarekin batean. Hala berean, gure lurraldean izan diren gertaera pozgarriekin batean ere hor izan dugu sinbolo hori, gure errealitate historikoaren, eta gure herrian hain errotua dugun fede eta herri-erlijiotasunaren parte delarik.

‘Memoria demokratikoa’ deritzana babesteak ez du esan nahi gure tradizio erlijio osoa ezabatu beharrekoa denik, baizik era iraganetik datozkigun elementuak bakoitza bere tokian jarri beharrekoak direla. Ez litzaioke inori bururatuko Zumarragako *Antiguako* eliza, XVI. mendean eraikia, botatzea, sinbolo kristaua delako. Ukaezineko ondare erlijioso eta kulturala da gure lurlean. Ez litzaioke inori bururatuko Donostia ospitala eraistea, frankismo garaian eraikia delako eta Francok berak inauguratu delako; ezta Usandizaga Institutua edota Doostia hiriari hainbeste onura ekarri dion beste zenbait eraikin eraistea, urte haietan eraikia eta orduan Estatuburu zenak inauguratua delako. Erregimenaren ideiak iraunarazteko egin ote zituzten ikasketa-zentru eta eraikin horiek? Eta Estatuak Donostiako auzo askotan eraiki zituen etxe merkeak? Langileen onginahia bereganatzeko eraikitzen ote zituen erregimenak? Donostiako pilotalekuetan maiz izan zen Franco pilota-partidak ikusten. Hori dela eta, pilota-partida guztiak bertan behera utzi beharko ote lirateke, erregimenaren sinbolo direlakoan? Orduan, zer dela-eta proposatu Urgulleko monumentua desagitea, 1950ean inauguratua izanik ere, ez bere sorreran ez gerora erregimenaren propagandarekin zerikusirik izan ez zuen monumentua, eta xede espiritual eta soziala orduan eta orain betetzen duen monumentua? Benetako memoria historikoak ez ditu gertatuak ikuspegi ideologikotik begiratzat interpretatu behar, gertakari haiek beren garaian zuten esanahia aintzat hartuz baizik.

#### **4. Monumentuaren balio erlijioso eta kulturala: Donostiaren ondarea**

Urgulleko monumentuaren jatorria erlijiosoa dela jakiteaz gainera, kontuan hartu beharra dugu bizirik den ondarea ere badugula: hiriaren paisaia txertatua dagoen erreferentzia-puntua, eta donostiar belaunaldi askorentzat debozio-puntua, gaurdaino miretsia, goraipatua eta bisitatua. Beste ezer baino lehen, ezaugarri erlijiosoa da, gure hirian gehiago diren sinestunak Gipuzkoan Jesusen Bihotzarekiko dagoen tradizioarekin elkartzen dituen ezaugarria, hain zuzen. Ikusi dugun ibilbide historikoan agerian gelditu da etengabekoa dela debozio hori gure lurraldean. Oinari erantsia den kapera otoitz-gunea da, Jauna agerian jartzeko tokia, sakramentuak ospatzeko tokia, ekainean bereziki. Horrek bizirik mantentzen du herriaren debozioa eta eraikinaren eta inguruaren zaintza. Mezak ospatzean eta ekitaldi erlijiosoetan Donostiako eta Gipuzkoako bizilagunen alde otoitz egiten da berariaz, Jesusen Bihotzaren eta Mariaren Bihotzaren babesa eta laguntza eskatuz<sup>24</sup>.

Gainera, hiriaren sinboloa ere bada, eta sinbolo kulturala<sup>25</sup>. 12,50 m altuera duen irudia, bere

<sup>24</sup> Horren adibide da 2015ean, adibidez, Urgulleko Bihotz Santua Gipuzkoako elizbarrutiko lekuetako bat izendatu zutela, Loiolako eta Arantzazuko santutegiarekin batera, Frantzisko Aita Santuak ezarritako Errukiaren Jubileua irabazteko. Era berean, Jose Tolentino Mendonça kardinalak, Kultura eta Hezkuntzarako Dikasterioko Prefektuak, Frantzisko Aita Santuak 2025eko Jubileu Unibertsala inauguratzeko bidaliak, inaugurazio Eukaristian (urtarrilaren 6an), Artzain Ona Katedralean egindako homilian, monumentua aipatu zuen: «Gaur goizean itsas pasealekutik ikusi ahal izan dut Jesu Kristok hiri eta elizbarruti honekiko duen maitasunaren sinbolo gisa altxatzen den Urgull mendiko Jesusen Bihotzaren irudi ikusgarria. Irudi horrek gogorarazten digu ‘bihotzera itzuli’ behar dugula, funtsezkoenera itzuli behar dugula, Kristorekiko atxikimenduan kokatu behar dugula beti, anaiak maitatzera garamatzan atxikimenduan» (Donostiako Gotzaindegiko Aldizkari Nagusia 778 zkia., 2025, 23. or.).

<sup>25</sup> Monumentuak berrogeita hamar urte bete zituenean, orduko alkate Odón Elorza jaunak Diario Vasco egunkarian egindako elkarrizketa batean adierazi zuen monumentua «erabat txertatuta dagoela hirian» eta «une honetan bere berezitasun erlijiosoaren gainetik dagoen esanahia duela», zailentzari gabe gure tokiko historiaren zati

proportzio handientsuekin (guztira, 28,80 m altura du monumentuak, oina eta guzti) Urgull mendi gailurrean kokatzen da, gotorlekua zen tokian, gure historiaren testigu. Dagoen toki horretatik –Motako Gazteluaren zelaigunean, itsas mailatik 130 metrora– ikuspegi panoramikoak ditu, Gipuzkoako zati handia eta itsasoa ikus daitezkeelarik. Ikuspegi hori, turisten eta donostiarren goizamenerako ez ezik, itsasgizonentzat gidari ere bada, oso urrutitik, milia askotatik, ikusten baitute. Donostiaren «ondarea» dela esatean, monumentu historikotzat deklaratu edota Interes Kultureko Ondasuntzat deklaratu dagoen horretaz ez ezik, gure izaera kolektiboaz ere ari gara: mendia bera, irudia, kapera, aldameneko kapera Mariaren Bihotzari eskainia, hemengo gure memoriako gertaerekin zerikusia duten herri kontaerak.

Inkesten arabera, donostiarrentzat Urgulleko Jesusen Bihotzaren irudia, Arantzazu eta *Antiguaren* ondoren, Gipuzkoako «gauza miresgarrietako»<sup>26</sup> bat da. Horrela baliotatzea ez da monumentuaren balio artistikoa edota ikuspegia balioztatze hutsa, baizik eta monumentua geurea dugula sentitzea: donostiar askok gogoan du umetan nola eramaten zituzten gurasoek barruko kaperan kandela piztera eta familiaren asmoen alde otoitz egitera<sup>27</sup>. Beste batzuek han ospatu dute beren ezkontza, apaiz-jubileuak, gau-otoitzaldiak. Bai, han, irudiaren oinean dagoen tenplu txikian, haizearen ziztua eta olatuen hotsa entzunez. Monumentuak Urgull ez ezik, belaunaldi askoren bihotza koroatzen du, han aurkitu baitute beren baitara biltzeko unea eta harandikoa aurkitzeko gunea.

## 5. Urgull mendia, elkarketarako, memoriarako eta esperantzarako gunea

Garai batean gotorleku militarra eta, orobat, borroka eta gudu askoren testigu izan zen Urgull mendian, defentsarako gunea izan zen toki berean, orain jazarketa odoltsuekin batera erruki- eta solidaritate-zeinuak ere ikus ditzakegu. Mendi horretan soldadu zaurituei laguntza eskaini zieten hiriko apaizek eta familiekin. Gerora, monumentua eraiki zutelarik, prozesioak, peleginazioak, gau-otoitzaldiak ekainean eta zauriak gozatzeko nahiz bizilagunen eta bisitarien artean zubiak egiteko ekitaldiak izan dira. Motako Gazteluaren hondakinen gainean 1950ean eraiki zuten Jesusen Bihotzaren irudia, sendakuntza-gogo horren ezaugarri gertatzen da: bere eskuin eskuaz hiria bedeinkatzen du, eta ezker eskuaz bere bihotza erakusten, gatazka ororen aurrean guretzat beti gupidaz irekia duela adieraziz. Elkar ongi hartzeko, bakea eta itzaropena bizitzeko egokiera eskaintzen digun kristautasunarekin lotua dugu, zalantzarik gabe, geure oroipena. Gure herriaren erlijio zaletasunarekin ere lotua dugu, herri honek asmatu eta erabaki baitzuen halako monumentu esanahitsua erakitzea.

Gaur egungo testuinguruan, Memoria Demokratikoa sustatzen duen 20/2022 Legea aipatuz, goraipamen frankistak ezabatzeko aitzakiaz proposatu duten irudia botatze hori bihur daiteke ondare espiritual eta kultural bidezkoa dena ezabatzea –arrisku handia dago hori egiteko– eta, ideologia oker erabilirik, komunitate katoliko ugariaren erlijio askatasunaren aurkako atentatua izan daiteke. Monumentuak Francoren erregimenarekin zerikusia zuela oker esatean ukatua gertatzen da historiaren egiazko irakurketa, zalantzarik gabe erakusten baitu arrazoi erlijiosoa eta komunitarioa besterik ez zuela izan jatorrizko proiektuak –1926 eta 1950 urte bitartean hausnartua–, eta propaganda politikoa baino lehenagokoa eta propaganda horretatik libre sortu zela. Monumentua eraikitzea eta inauguratzea, doktrinamendurako ekitaldia edota tresna ez, baizik eta itzaropena piztu zuen ekitaldi katolikoa izan zen, gerra ondoko egoera fedearen

---

esanguratsua dela aipatuz (DV, 2000ko azaroaren 19). Zentzu horretan mintzatu zen duela gutxi egungo Alkate D. Eneko Goia ere, eta esan zuen monumentua, «bere ekimena gerra zibilaren aurrekoa» izateaz gain, «hiriaren skyline-aren parte» dela. (DV, 2025eko ekainaren 3).

<sup>26</sup> Irakurleei egindako inkesta (DV, 2007ko irailaren 2).

<sup>27</sup> Benetan aipagarria da, Donostiako Udalak, 2007an *Hiritar Merezimenduagatik Urrezko Domina* Sor María Luisa Antón erlijiosari eman izana, urte luzetan kapera eta monumentua zaindu eta babesteagatik.

eraginez argitu nahirik eta gizartea berreraiki nahirik.

Espero dezagun Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Aldundiak jarraituko dutela ondare honen kontserbatze-ahaleginean konprometituak, ingurua eta proiektua, hala behar bada, hobetuz, Urgull mendiaren historia eta monumentuaren jatorria argibide-tauletan aditzera emanaz, setio eta tradizio militarrek aipatuz eta, horrekin batera, herri debozioak ere aipatuz. Horrela ikusaraziko genuke adiskidetzeari nahi dugula denok, eta ez sesio-hormak jaso, aurreiritzi edota oker ulertze ideologikoak erabiliz, gauzak egiaz nola gertatu ziren kontuan izan gabe. Beharrezkoa da, orobat, herriaren babesa eta Donostiako eta Gipuzkoako kristau-elkarteen babesa.

Urgulleko Jesusen Bihotza kontserbatzeak horixe esan nahi du, hain zuzen: ikur bat babestea, errausketatik jaiki zen komunitateari eusten lagundu zion ikurra, hain zuzen. 75 urte honetan monumentuak bere baitan hartu ditu herriaren otoitzak, debozioa, ospakizunak, pozak eta atsekabeak. Urgulleko gure Jesusen Bihotzak denentzako den maitasun-mezua hedatzen du, adiskidetze- eta itxaropen-mezua, gure lurreko historian sustraitua. Monumentu hau zaintzeak gizalegezko heldutasuna agerian jartzen du eta egiazko normaltasun demokratikoa.

Horregatik guztiagatik, donostiar guztiak, inor bazterrean utzi gabe, gonbidatzen ditut monumentu honetan itxaropenaren sinbolo bizia ikustera. Aurtengo ekaina egokiera izan daiteke, Jesusen Bihotzaren babespean, gupida, abegi ona, harmonia ona eta elkarrizketa lantzeko, eztabaida oro gaingiduz. Aspaldidanik dakigu eta ikusten dugu Donostiako hiri zoragarri honetan denentzat dagoela tokia.

Hartu nire adeitasuna eta bedeinkapena,

+ Fernando Prado Ayuso  
*Donostiako Gotzaina*